

I+G
2025



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EAEko I+Ga: 2025eko ikuspegia eta egoeraren diagnostikoa

2025eko apirila

 **innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

Sarrera

Ikerketa eta garapen esperimentalak (I+G) berrikuntza sustatzeko jardura nagusietako bat da. Zehazki, hazkunde ekonomikoa, jasangarritasuna eta bizi-kalitatearen hobekuntza bultzatzeko gai diren ezagutza zientifiko berriak eta teknologia berriak sortzeko aukera ematen du. EAEn, enpresen berrikuntzako inbertsioen % 75 inguru da I+Ga.

Haren garrantziagatik, eta I+Gko inbertsioari buruzko datu estatistikoek denbora-desfase esanguratsua dutelako (2024ko azaroan argitaratu ziren 2023ko datuak), Berrikuntzaren Euskal Agentziak, Innobasquek, EAEko I+Gko inbertsioaren urteko zenbatespena egiten du 2019tik. Ariketa hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean jasotako ebaluazio-funtzioaren parte da; lurraldeko berrikuntza-politikak bideratzen laguntzeko betetzen du Innobasquek funtzio hori.

I+Gko inbertsioaren zenbatespena honako bi erreferentzia hauek hartzen dituen estatistika-tresna batean oinarrituta kalkulatu da: EAEko I+Grako aurrekontuak eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak Barne-Produktu Gordinaren (BPGd) bilakaeraz egindako aurreikuspena, batetik, eta, bestetik, aldagai horiek I+Gko enpresa-finantzaketarekin duten korrelazioa. Ondoren, lortutako kalkulua EAEko I+Gko 17 trakzio-enpresaren talde bateko aurreikuspenekin doitzen da; enpresa guztiak Berrikuntzaren Euskal Agentziaren bazkideak

dira eta I+Grako enpresa-finantzaketaren % 40 ordezkatzeko dute. Era berean, datu horiek BRTako zentroek emandakoekin osatzen dira.

Bost ekitalditan, erregistratutako azken balioekiko zenbatespenen errore-marjinak aldatu egin da, hein batean pandemia dela-eta sortu den joera-alaketarengatik. Egindako azken analisian, 2023ko daturako errore-marjina % 5,3koa izan zen.

Zazpigarren edizio honetan, Innobasquek 2025erako I+Gko inbertsioa zenbatetsi du. Horretarako, 2023ko azken datu estatistikoak hartu ditu oinarritzat (2024ko azaroan argitaratuak) eta 2024ko datuen zenbatespena egin du.

Azkenik, Eustatek argitaratu berri dituen 2023ko datuak kontuan hartuta, EAEko I+Garen egoerari buruzko azterketa zehatza ere egin da.



AUR
KIBI
DEA

EAEko I+Ga: 2025eko ikuspegia eta egoeraren diagnostikoa

2025eko apirila

01.

EAEko I+Gko inbertsioaren zenbatespena

- Emaiza nagusiak
- Zenbatespenaren xehetasuna
- EAEko I+Gko trakzio-enpresen ikuspegia

02.

EAEko I+Gari buruzko diagnostikoa

- Laburpena
- Bilakaera
- EAE nazioarteko agertokian

03.

Eranskinak



Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación





01

EAEko I+Gko inbertsioaren zenbatespena

- E-maila nagusiak
- Zenbatespenaren xehetasuna
- EAEko I+Gko trakzio-enpresen ikuspegia



Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación



Innobasque-k egindako zenbatespena

(2025eko martxoan)

Inbertsioa
I+Gan EAEn
2025ean

2.395 M€

2024AREKIKO

+% 8,4

1.389 M€
ENPRESAK

+% 10,3

777 M€
ADMINISTRAZIOAK

+% 6,7

178 M€
NAZIOARTEKOA

+% 2,3

51 M€
BESTE BATZUK

+% 4,8

Innobasque-k egindako zenbatespena

(2025eko martxoan)

Inbertsioa
I+Gan EAEn
2024an

2.210 M€

2023^{AREKI}KO

+% 10,4

1.259 M€
ENPRESAK

+% 13,3

729 M€
ADMINISTRAZIOAK

+% 7,0

174 M€
NAZIOARTEKOA

+% 8,7

48 M€
BESTE BATZUK

-% 4,0

EUSTAT-en datu errealak

(2024ko azaroan)

Inbertsioa
I+Gan EAEn
2023an

2.002 M€

2022^{AREKIKO}

+% 11,6

1.111 M€
ENPRESAK

+% 10,7

681 M€
ADMINISTRAZIOAK

+% 11,9

160 M€
NAZIOARTEKOA

+% 10,9

50 M€
BESTE BATZUK

+% 31,9

I+Gko inbertsioa BPGd-arekiko

2023an > % 2,16

2022an > % 2,07

-6 e.p.

< EB-27REN ALDEAN >

-14 e.p.

Enpresa-finantzaketak (handitu egingo litzateke, guztizko inbertsioaren gaineratik) eta finantzaketa publikoak bultzatuko lukete hazkunde hori.

	GUZTIRA	Enpresak	Administrazio publikoak	Nazioartekoa	Beste iturri batzuk
Inbertsioa I+Gan 2025ean (milioi euro)	2.395 M€	1.389 M€	777 M€	178 M€	51 M€
Urtetik urterako aldakuntza (ehunekoa)	+% 8,4	+% 10,3	+% 6,7	+% 2,3	+% 4,8

Enpresak: handitu egingo da, konpainien funts propioek eta administrazio publikoen finantzaketa handiagoak bultzatuta.

Administrazio publikoak:

- **Eusko Jaurlaritza:** % 6 handituko da, legegintzaldirako ezarritako konpromisoaren ildoan, 572 M€-tara iritsi arte.
- **Estatuko Administrazio Orokorra:** % 16,7 handituko da, 178 M€-tara iritsi arte, NextGenerationEUtik datozen funtsak gehiago egikarituko baitira.
- **Foru-aldundiak eta beste toki-entitate batzuk:** % 25,7 txikituko da, azpiegituretako ezohiko inbertsioen amaiera dela eta, eta 27 M€-ko inbertsiora iritsiko da.

Nazioartekoa: aurreko urteetakoa baino hazkunde txikiagoa espero da, EAEko I+Garen espezializazioaren eta Europako deialdien (batik bat Horizon Europeen II. zutabekoak) arteko deslerrokatze handiagoa dela-eta.

**Enpresek % 10,3
handituko dute
2025ean I+Gra
bideratutako
inbertsioa.**

Konpainiek I+Gko inbertsioak indartu egingo dituzte 2025ean % 10,3ko igoerarekin. Ondorioz, inbertsio-bolumena 1.389 milioi eurotara iritsiko da, EAEko enpresa-finantzaketaren maximo historikoa.

	2023 errealak	2024 zenbatetsia	2025 zenbatetsia
I+Gko enpresa-finantzaketa (milioi euro)	1.111 M€	1.944 M€	1.389 M€
Urtetik urterako aldaketa (ehunekoa)	+% 10,7	+% 13,3	+% 10,3

I+Gko enpresa-finantzaketa enpresek I+Gra bideratutako finantzaketari dagokio. Edozein tamaina eta jarduera-sektoretako (industria, zerbitzuak eta abar) konpainiak dira; nagusiki, pribatuak. Tartean, hauek daude:

- Enpresek beren I+Gko barne-jarduera finantzatzeko erabiltzen dituzten funts propioak (langile-gastuak, zeharkako gastuak, kapital-gastuak eta abar).
- Hirugarren erakundeei I+Gko zerbitzuak azpikontratatzeari (kontratupeko I+Ga); hala nola, teknologia-zentroei, unibertsitateei eta beste enpresa batzuei.

Finantzaketa publikoa % 6,7 handituko da 2025ean eta 800 milioi euroko mugara iritsiko da.

I+Gko finantzaketa publikoaren igoera azkartu egingo da 2025ean, % 6,7ko hazkundeari esker.

Bilakaera hori Eusko Jaurlaritzaren I+Gko eta berrikuntzako aurrekontuen % 6ko gehikuntzak eta NextGenerationEU funtsekin finantzatutako Ekonomia Suspertzeko eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoekin (ESEPE) lotutako egitasmoek bultzatuko dute; hala nola, Ibilgailu Elektriko eta Konektatuaren ESEPEa, Estatuko Administrazio Orokorren bitartez bideratua.

	2023 errealia	2024 zenbatetsia	2025 zenbatetsia
I+Gko finantzaketa publikoa (milioi euro)	681 M€	729 M€	777 M€
Urtetik urterako aldaketa (ehunekoa)	+% 11,9	+% 7,0	+% 6,7

I+Gko finantzaketa publikoa administrazio publiko hauek I+Gra bideratutako funtsei dagokie:

- **Eusko Jaurlaritza**¹ (Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila; Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila; Osasun Saila; eta abar).
- **Estatuko Administrazio Orokorra**, I+Ga xede duten NextGenerationEUren funts gehienak bideratzen dituena.
- **Foru-aldundiak** eta **beste toki-administrazio batzuk**.

Funts horiek honako hauek biltzen dituzte:

- I+Gko jarduerak egiteko enpresei, teknologia-zentroei eta abarrei emandako dirulaguntzak;
- Unibertsitate eta ospitale publikoen I+G¹ alorrean diharduten langileen soldatak.
- Administrazio publikoek beren I+Gko barne-jarduera finantzatzeko erabiltzen dituzten funts propioak.
- Hirugarren erakundeei I+Gko zerbitzuak azpikontratatzeari (kontratupeko I+Ga).

(1) Irakasle-ikertzaileek eta medikuek I+Gra bideratzen duten kostuaren zati proportzionala kontabilizatu da, baita ikertzaileen kostu osoa ere. Iturria: Innobasquek zenbatetsitako datuak eta Eustaten datu errealak.

Nazioarteko finantzaketa modu neurritsuagoan haziko da 2025ean.

Nazioarteko finantzaketa modu neurritsuagoan haziko dela antzematen da 2025ean; izan ere, EAEko I+Garen espezializazioa eta Europako deialdiak (batik bat II. zutabea) ez daude hain lerrokatuta.

Gainerako funtsei dagokienez, horiek ere hazi egingo dira berriro.

		2023 real	2024 estimado	2025 estimado
I+Gko nazioarteko finantzaketa	Zenbatekoa (milioi euro)	160 M€	174 M€	178 M€
	Urtetik urterako aldakuntza (ehunekoa)	+% 10,9	+% 8,7	+% 2,3
I+Grako beste iturri batzuk	Zenbatekoa (milioi euro)	51 M€	48 M€	51 M€
	Urtetik urterako aldakuntza (ehunekoa)	+% 31,9	-% 4,5	+% 4,8

I+Gko nazioarteko finantzaketa kanpoko erakundeek, publikoek zein pribatuek, EAEn garatutako I+Gra bideratutako finantzaketari dagokio.


Funts horiek honako hauek biltzen dituzte:

- Nazioz gaundiko erakunde publikoek (adibidez, Europako Batzordeak Esparru Programaren bidez) edo atzerriko beste administrazio batzuek lurraldean I+Gko jarduerak egiteko emandako dirulaguntzak.
- Atzerriko erakundeek, batez ere enpresa pribatuek, I+Gko zerbitzuak azpikontratatzeari (kontratupeko I+Ga) lurraldean I+Gko jarduerak egiteko. Tokiko subsidiarioek egindako I+Ga finantzatzen duten atzerriko konpainia nagusiak izan daitezke.

Beste iturri batzuen finantzaketan sartzen dira goi-mailako irakaskuntzatik (funts propioak eta unibertsitate publiko eta pribatuen, unibertsitate horiei atxikitako ikerketa-zentroen eta goi-mailako lanbide-heziketako zentroen azpikontratazioak) eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuetatik (adibidez, fundazioen dohaintzak) datozen funtsak.

Ondorioz, EAEko BPGd-arekiko I+Gko inbertsioa % 2,37ra iritsiko da 2025ean.

I+Gko barne-gastua BPGd-arekiko (%-tan; 2008-2025e)



I+Gko inbertsio pribatuaren zenbatespena Innobasqueko 17 konpainia bazkideetatik jasotako datuekin doitu da. Konpainia horiek EAEko I+G alorreko trakzio-enpresen taldea osatzen dute. Sektore askotakoak dira konpainiak, 86.000 milioi euroko fakturazioa dute eta 240.000 pertsona enplegatzen dituzte mundu osoan. Haien EAEko I+Gko jardura —500 milioi eurokoa da— EAEko I+Garen enpresa-finantzaketa osoaren % 40 inguru da.

Datu horiek BRTAko zentroek I+Garen ustiapenaren diru-sarreraren bilakaerari buruz emandako datuekin osatu dira, finantzaketa-iturriaren arabera.

EAEKO I+GKO TRAKZIO-ENPRESEN TALDEA



ENPRESEN
I+GAREN
% 40

Sektoreen ordezkariak zabala: metala, energia, garraioa eta farmazeutikoa.

I+Gko inbertsioa

+% 10,3

2025

+% 13,3

2024



BRTAk, bestalde, % 7,0ko hazkundea zenbatesten du bere EAEko sarrera pribatuetan eta % 2,3koa, berriz, bere nazioarteko sarreretan 2025ean.

Gaur egungo zalantzazko testuinguru geopolitiko eta ekonomikoa gorabehera, orokorrean ikuspegi positiboak dituzte konpainiek beraien I+Gko negozioen eta jardueren eboluzioari buruz. Hala ere, automobilgintza sektorean zuhurragoak dira.

Haien I+Garen bektore nagusiak, oraindik ere, jasangarritasuna eta eraldaketa digitala dira, adimen artifizialak protagonismo handia izanik. Dibertsifikaziora jotzen ari da jarduera hori, bada.

Dibertsifikazioa dela-eta haien konpainietan ez dagoen ezagutza berria eskuratu beharrean daude eta, ondorioz, berrikuntza irekiko ekosistemak sortzen ari dira, eta startup eta eragile zientifiko-teknologikoekin elkarlanean aritzen ari dira. Hori horrela izanik, EAEko berrikuntza-ekosistemaren garrantzia azpimarratu dute.

Horietako gehienek oraindik ere nabarmen erabiltzen dituzte dirulaguntza-programak, baina, pertsonalizazio handiagoa eta burokrazia- eta eskakizun-maila txikiagoa eskatzen dute, bai eta azpiegituretako inbertsioak babestea ere (CAPEX), I+Garen emaitzak industrializatu ahal izateko.

Talentua erakartzeko eta atxikitzeke erronka aho batez partekatzen dute denek.

Orokorra da, halaber, burokraziari eta Europar Batasuneko araudiari egiten zaien kritika (ingurumena, Estatuko laguntzen araudia, adimen artifiziala eta abar), Txinarekiko lehia zailtzen baitute.

Jarduera industrial berria sortzeko deeptech edo teknologia sakonak duen ahalmenari dagokionez, konpainiek diote erabilera-kasuen eta esperientzien berri izan behar dutela haren ahalmena baloratzeko; bestela, nekez egingo dute haren aldeko apustua.



02

EAEko I+Gari buruzko diagnostikoa

- Laburpena
- Bilakaera
- EAE nazioarteko agertokian



Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación



Atal honek EAEko I+Gari buruzko diagnostiko zehatza du, Eustatek argitaratutako azken datuetan oinarritutakoa, bai eta nazioarteko testuinguruan duen egoera ere.


Honako ondorio hauek nabarmentzekoak dira:

1. EAEko I+Gko inbertsioa nabarmen hazi zen 2023an (zehazki, % 11,6) eta 2.002 milioi euroko maximo historikora iritsi zen.
2. Ezohiko hazkunde hori dela-eta, BPGd-arekiko I+Gko inbertsioak % 2,07tik % 2,16ra eboluzionatu zuen; azken hori da, serie historiko osoan lortu den gehieneko balioa.
3. Gainera, EAEk Estatuko lidergoari eutsi zion eta EBrekiko duen kokapena hobetu zuen (haren BPGd-arekiko I+Gko inbertsioa % 2,21etik % 2,22ra aldatu zen).
4. Azpiegituretako eta ekipamenduetako inbertsioek, beste urte batez, gora egiten jarraitu zuten; % 24 inguru handitu ziren, hain zuzen ere.
5. Finantzaketa-iturri nagusietatik, publikoa izan zen gehien handitu zena ehunekoetan adierazita (+% 11,9; +73 M€); nolana ere, balio absolutuetan, pribatuaren hazkundera handiagoa izan zen (+% 10,7; +107 M€).

6. Enpresek eta I+Gko eragileek nabarmen handitu zuten I+Gan gauzatutako inbertsioa; % 10etik gorako hazkundeak izan dira kasu guztietan.
7. Enpresen arloan, tamaina guztietako konpainiek izan zuten eragina sektorearen hazkunderan.
8. Jarduera-adarraren arabera, horietako gehienek areagotu egin zuten I+Gko inbertsioa; nolanahi ere, horien guztien artean, I+Gko jarduerak (enpresen I+Gko unitateak barne), ingeniarietza eta zerbitzu profesionalak eta material elektrikoa nabarmentzen dira 15 milioi eurotik gorako hazkundeekin.
9. BPGd-arekiko % 3ko inbertsio-atalasea gainditu duten erreferentzia-herrialdeak espezializatuta dauden sektoreek EAEko enpresen I+Garen gero eta ehuneko handiagoa hartzen dute (2023an, % 48ra iritsi ziren).
10. Hala ere, erreferentzia-herrialde gehienekin alderatuta, hazkundera neurritsuagoa izan da IKT zerbitzuetan edo garraioan (azken hori pisu handiarekin), non adimen artifizia eta elektrifikazioa hazkuntza-bektore nagusi izaten ari baitira.


I+Gko inbertsioa % 11,6 hazi zen 2023an eta 2.002 milioi euroko maximo historikora iritsi zen.

I+Gko barne-gastua, EAEn (milioi euro; 2008-2023)



EAEk EB-27rekiko kokapena hobetu zuen, BPGd-arekiko I+Gko inbertsioari zegokionez, eta 2013az geroztik izandako gutxieneko mailara jaitsi da aldea.

I+Gko barne-gastua BPGd-arekiko EAEn, EB-27n eta Espainian (%-tan; 2008-2023)



Iturria: Eustat, INE eta Eurostat.

— EAE (Eustat)

..... EAE (INE)

— EB-27


— Espainia

Gainera, BPGd-arekiko inbertsio-mailarik handiena duen autonomia-erkidegoa izan zen orduan ere eta % 9tik gorakoa inbertsio-pisua Estatuarekiko mantendu da.

Autonomia-erkidegoa	I+Ga BPGd-arekiko		I+Gko barne-gastua (mila euro)			Estatuarekiko pisua	
	2022	2023	2022	2023	Bilakaera	2022	2023
GUZTIRA	% 1,41	% 1,49	19.324.755	22.379.154	+% 15,8	% 100,0	% 100,0
EAE (INE)	% 2,20	% 2,35	1.772.820	2.062.113	+% 16,3	% 9,2	% 9,2
EAE (Eustat)	% 2,07	% 2,16	1.794.704	2.002.465	+% 11,6	% 9,3	% 8,9
Madril	% 1,92	% 2,06	5.130.046	6.039.560	+% 17,7	% 26,5	% 27,0
Katalunia	% 1,87	% 1,90	4.827.232	5.364.909	+% 11,1	% 25,0	% 24,0
Nafarroa	% 1,77	% 1,78	409.931	446.706	+% 9,0	% 2,1	% 2,0
Gaztela eta Leon	% 1,33	% 1,36	866.999	963.634	+% 11,1	% 4,5	% 4,3
Galizia	% 1,05	% 1,24	751.045	962.801	+% 28,2	% 3,9	% 4,3
Valentziako Erkidegoa	% 1,16	% 1,23	1.485.293	1.713.279	+% 15,3	% 7,7	% 7,7
Aragoi	% 1,03	% 1,16	447.121	543.624	+% 21,6	% 2,3	% 2,4
Andaluzia	% 1,03	% 1,14	1.890.566	2.285.666	+% 20,9	% 9,8	% 10,2
Murtzia	% 1,03	% 1,06	387.214	426.454	+% 10,1	% 2,0	% 1,9
Asturias	% 0,82	% 0,98	217.867	278.980	+% 28,1	% 1,1	% 1,2
Kantabria	% 0,89	% 0,96	138.479	161.454	+% 16,6	% 0,7	% 0,7
Errioxa	% 0,85	% 0,91	82.328	96.928	+% 17,7	% 0,4	% 0,4
Extremadura	% 0,68	% 0,72	158.054	179.329	+% 13,5	% 0,8	% 0,8
Gaztela-Mantxa	% 0,63	% 0,62	313.897	332.831	+% 6,0	% 1,6	% 1,5
Kanariak	% 0,56	% 0,57	271.596	309.304	+% 13,9	% 1,4	% 1,4
Balear Uharteak	% 0,44	% 0,48	164.211	201.008	+% 22,4	% 0,8	% 0,9
Ceuta eta Melilla	% 0,29	% 0,29	10.056	10.573	+% 5,1	% 0,1	% 0,0


Pandemia amaitu zenez geroztik, azpiegitura zientifiko eta teknologikoetako inbertsioek indarrez egin dute gora EAEn, eta EBrekiko zegoen aldea txikitu egin da.

I+Gko barne-gastuaren egitura, gastu-motaren arabera, EAEn eta EB-27n (%-tan; 2011-2023)




Iturria: Eustat eta Eurostat.

I+Gko barne-gastuaren aldakuntza, gastu-motaren arabera (%-tan; 2020-2023)




2023an I+Gan inbertitu ziren 2.002 milioi euroak funts horien jatorriaren edo gauzatzearen arabera bereiz daitezke, eta, kasu batean zein bestean, enpresak dira eragile nagusia.



Hirugarren urtez segidan, EAEko finantzaketa-iturri nagusi guztiek egin dute gora eta nabarmentzekoa da hazkundeak % 10etik gorakoak direla guztietan.


Funtsen jatorriaren arabera bereizketaren arabera, enpresek % 10,7 handitu zuten beraien I+Gko inbertsio-bolumena 2023an, eta 1.111 milioi eurotara iritsi ziren. EAEko administrazio publikoak % 6,8 handitu zuten aipatu inbertsio-bolumena. Eragile eta enpresek 2023an egin zuten I+Gko gastuari dagokio inbertsioa; EAEko administrazioek urte horretan finantzatu zituzten proiektuen multzotik dator.

I+Gko barne-gastua, funtsen jatorriaren arabera, EAEn
(milioi euro; 2011-2023)




Iturria: Eustat.

I+Gko barne-gastuaren finantzaketaren urtetik
urterako aldakuntza (%-tan; 2020-2023)




I+Gko enpresek eta eragileek nabarmen handitu zuten I+Ga gauzatuko inbertsioa; % 10etik gorako hazkundeak izan dira kasu guztietan.

I+Gko gastua, gauzatze-sektorearen arabera, EAEn
(milioi euro; 2011-2023)



Iturria: Eustat.


I+Gko barne-gastuaren urtetik urterako
aldakuntza, gauzatze-sektorearen arabera
(%-tan; 2020-2023)




Enpresen arloan, tamaina guztietako konpainiek izan dute eragina hazkundean.

Enpresa bakoitzak I+Gan egindako inbertsioaren intentsitateari dagokionez, enpresen I+Gko unitateen azken urteetako jardueragorakada nabarmentzen da; enpresa handiena, aldiz, gelditu egin da 2023an.

I+G alorrean aktiboak diren EAEko enpresak, tamainaren arabera (kopurua; 2018-2023)



I+Gko inbertsioa, enpresa eta tamainaren arabera (k€; 2018-2023)



Ia enpresa-sektore guztiek handitu zuten beraien I+Gko inbertsioa 2022aren aldean, eta I+Gko jardueren (I+Gko unitateak barne), ingeniari-tza eta zerbitzu profesionalen eta material elektrikoaren balio absolutuetako hazkundera nabarmentzen da.

SEKTOREA	2022	2023	Bilakaera 2022 - 2023	
	Mila euro	Mila euro	Mila euro	ehunekoa
GUZTIRA¹	1.031.766	1.150.796	+119.030	+% 11,5
I+Gko jarduerak enpresen I+Gko unitateak eta abar) ¹	208.557	235.525	+26.968	+% 12,9
Ingeniaritza, arkitektura, zerbitzu profesional eta teknikoak etab.	121.037	141.811	+20.774	+% 17,2
Material elektronikoa	35.252	51.846	+16.594	+% 47,1
Doitasun-materiala	38.426	48.284	+9.858	+% 25,7
Material elektrikoak	39.351	49.129	+9.778	+% 24,8
Produktu metalikoak	54.235	62.654	+8.419	+% 15,5
Jarduera informatikoak	76.792	82.657	+5.865	+% 7,6
Garraio-materiala (automobilgintza, aeronautika, trenak, ontziak)	133.364	139.032	+5.668	+% 4,3
Beste zerbitzu batzuk	51.891	56.960	+5.069	+% 9,8
Eraikuntza	14.384	18.482	+4.098	+% 28,5
Industria farmazeutikoa, kimikoa eta petrolio-finketa	39.395	43.185	+3.790	+% 9,6
Makina-erreminta	26.690	29.857	+3.167	+% 11,9
Altzarien fabrikazioa eta beste manufaktura batzuk	14.595	15.804	+1.209	+% 8,3
Metalurgia	31.014	32.075	+1.061	+% 3,4
Kautxua eta plastikoa	28.703	29.056	+353	+% 1,2
Etzetresnak	2.718	2.174	-544	-% 20,0
Beste makina eta ekipa-ondasun batzuk	84.464	83.666	-798	-% 0,9
Energia; nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza; erauzte-industriak	25.342	24.297	-1.045	-% 4,1
Industria ez metalikoa (zementua, beira, etab.)	5.556	4.302	-1.254	-% 22,6

Energia;
nekazaritza,
abeltzaintza
eta arrantza;
erauzte-
industriak

Manufaktura-
industria


Eraikuntza

Zerbitzuak

(1) Kanpo daude zentro teknologikoen eta IKZek I+Gan egindako barne-gastua; izan ere, Europako zentro homologoak publikoak izan ohi dira, eta, oro har, administrazio publikoaren sektorekoak dira. Iturria: Eustat.


EBk BPGd-arekiko I+Gko inbertsio-mailari eutsi zion 2023an eta Ameriketako Estatu Batuekiko aldea pixka bat murriztu zen; Txinaren aldean, berriz, handitu.

BPGd-arekiko I+Gko barne-gastua erreferentzia-herrialdeetan
(ehunekotan; 2008-2023)




I+Gan inbertitzen duten Europako korporazio handien espezializazio sektorialak azaltzen du egoera hori hein handi batean.

I+Gan gehien inbertitzen duten 2.000¹ enpresen lurralde-pisua (ehunekotan; 2013-2023)



I+Gko inbertsioa, sektorearen eta geografiaren arabera (kM€; 2023)




(1) Aldaketa metodologikoa 2024ko EU Industrial R&D Investment Scoreboard-en: aurreko edizioetan, I+Gan gehien inbertitzen duten 2.500 enpresak analizatzen ziren; orain, berriz, 2.000 analizatzen dira.

Iturria: Europako Batzordea. The 2024 EU Industrial R&D Investment Scoreboard.

Gaur egun, BPGd-arekiko % 3ko edo gehiagoko I+Gko inbertsioa duten ELGAko 10 herrialdeak dira.

BPGd-arekiko % 3ko edo gehiagoko I+Gko inbertsioa duten ELGAko herrialdeak,
eta enpresek I+Gan egindako inbertsioaren pisua
(%-tan; 2023¹)




(1) 2021eko datuak Suitzarako eta 2022koak Hego Korearako, Estatu Batuetarako, Israelerako eta Japoniarako.
Iturria: Innobasquek egina, ELGAren (I+Gko estatistika) datuak oinarri hartuta.

■ Enpresek I+Gan egindako inbertsioaren pisua

● I+Gko intentsitatea

Horietatik guztietatik, enpresa-sektorearen pisua nabarmendu behar da: I+Gan egindako inbertsio osoaren bi heren gainditzen ditu. EAEn, aldiz, % 60tik hurbil gelditzen da.


EAEko¹ eta erreferentzia-herrialdeetako enpresek I+Gan egindako inbertsioaren pisua (%-tan; 2023²)



(1) Kanpo daude zentro teknologikoen eta IKZek I+Gan egindako barne-gastua; izan ere, Europako zentro homologoak publikoak izan ohi dira, eta, oro har, administrazio publikoaren sektorekoak dira.
(2) 2021eko datuak Suitzarako eta 2022koak Hego Korearako, Estatu Batuetarako, Israelerako eta Japoniarako.
Iturria: Innobasquek egina, ELGAren (I+Gko estatistika) eta Eustaten datuak oinarri hartuta.

Erreferentzia-herrialdeetan egiten diren enpresa-inbertsio horietako gehienak bost sektoreri dagozkie (hiru industrial eta bi zerbitzuetakoak): farmazeutikoa, elektronika, garraioa (batik bat automobilgintza), IKT zerbitzuak eta I+Gko zerbitzuak.

Enpresek I+Gan egindako inbertsioaren banaketa jarduera-adarraren arabera
(%-tan; 2021¹⁾)




(1) Ez dago 2022ko daturik herrialde guztietarako.

Iturria: Innobasquek egina, ELGAren —enpresen I+Gari buruzko datu-base analitikoa (ANBERD database)— datuak oinarri hartuta.

Sektore horiek EAEko enpresen I+Gan duten pisuak positiboki eboluzionatu du 2012az geroztik, eta, 2023an, konpainien I+Gko inbertsioen ia erdia irudikatzen zuten.

Enpresek EAE¹ I+Gan egindako inbertsioaren ehunekoa jarduera-adarraren² arabera
(%-tan; 2012-2023)



(1) Kanpo daude zentro teknologikoak eta IKZek I+Gan egindako barne-gastua; izan ere, Europako zentro homologoak publikoak izan ohi dira, eta, oro har, administrazio publikoaren sektorekoak dira.
(2) Industria farmazeutikoaren datuek industria kimikoaren gainerakoak eta petrolio-fintzearen sektoreak I+Gan egindako inbertsioa barne hartzen dute, ez baitago informazio bereizirik.
Iturria: Innobasquek egina, Eustaten (I+Gko jarduerari buruzko estatistika) datuak oinarri hartuta.

Gainera, I+Gan erreferentziazko herrialdeak espezializatuta dauden sektore guztietan hazi da EAE, hazkuntza hori neurritsuagoa izan bada ere IKT zerbitzuetan eta garraioan.

Enpresek I+Gan egindako inbertsioaren eboluzioa, jarduera-sektore nagusien arabera, BPGd-arekiko % 3 baino gehiagoko I+Gko inbertsioa duten ELGAko herrialdeetan eta EAEn¹ (%-tan; 2012-2021)

SEKTOREA	Israel	Estatu Batuak	Belgika	Hego Korea	Suedia	Alemania	Austria	Suitza	Japonia	Finlandia	EAE ¹
Enpresen I+G	+% 140,3	+% 109,8	+% 109,4	+% 87,0	+% 65,0	+% 40,8	+% 39,3	+% 30,9	+% 16,9	+% 9,7	+% 21,9
Sektore nagusiak	+% 148,2	+% 105,9	+% 106,8	+% 91,9	+% 72,0	+% 41,7	+% 67,0	+% 44,3	+% 5,7	+% 2,7	+% 49,0
Farmazeutikoa	-% 14,5	+% 115,8	+% 97,8	+% 127,6	+% 37,2	+% 35,1	+% 78,2	+% 64,4	+% 7,1	+% 32,5	+% 76,8
Elektronika	+% 87,5	+% 61,3	-% 13,7	+% 84,8	-% 78,3	+% 22,2	+% 151,8	+% 4,4	-% 18,1	-% 34,5	+% 47,0
Garraioa	Ez dagokio	+% 25,0	-% 28,8	+% 69,8	+% 97,6	+% 38,6	+% 94,1	Ez dagokio	+% 37,1	+% 48,8	+% 18,6
IKT zerbitzuak	+% 273,6	+% 206,3	+% 248,7	+% 110,2	+% 786,2	+% 72,1	+% 75,6	+% 208,7	-% 10,2	+% 110,9	+% 59,2
I+Gko zerbitzuak	+% 71,2	+% 106,9	+% 143,7	+% 956,0	+% 46,1	+% 123,0	-% 6,3	+% 17,0	-% 16,0	+% 45,4	+% 64,8
Beste sektoreak	+% 67,4	+% 122,4	+% 112,6	+% 75,1	+% 50,7	+% 39,0	+% 18,8	+% 8,3	+% 40,6	+% 21,0	+% 5,6

(1) EAEren kasuan, kanpo daude zentro teknologikoek eta IKZek I+Gan egindako barne-gastua; izan ere, Europako zentro homologoak publikoak izan ohi dira, eta, oro har, administrazio publikoaren sektorekoak dira.

Iturria: Innobasquek egina, ELGAren —enpresen I+Gari buruzko datu-base analitikoa (ANBERD database)— eta Eustaten (I+Gko jarduerari buruzko estatistika) datuak oinarri hartuta.



03

Eranskinak



Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación




Ereduaren sendotasuna

	2019	2020	2021	2022	2023
Zenbatetsitako datua	1.514 M€	1.576 M€	1.607 M€	1.637 M€	1.895 M€
Datu errealak	1.481 M€	1.490 M€	1.647 M€	1.795 M€	2.002 M€
Zenbatespen-errorea	+% 2,2	+% 5,8	-% 1,2	-% 8,8	-% 5,3

Informazio estatistiko osagarria

Enpresen I+G unitateek I+Gan egindako barne-gastuaren banaketa, haien enpresa nagusiaren sektorearen arabera (ehunekotan; 2023)





Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación



www.innobasque.eus